

Ikastetxean, taldearen jakituria



HIRUKI LARROXA

Ikastetxeetako ikasgelak, tamalez, espazio gatazkatsuak izaten dira askotan eta, gatazka gehienetan gertatzen den moduan, emozio intentsuak eta minak izaten dira. 2022an, ikastetxeetan aritzen diren beste eragile batzuekin batera, azken urteetan ikasgela askotan bizirik dagoen gatazka baten inguruko hausnarketa-prozesu bat abiatu genuen. Alegia, "Mutil Gazteekin Feminismotik Esku Hartzen" prozesua, gehienbat mutilen artean (eta irakasleen artean) nahiko presente dagoen jarrera antifeminista eta horren ondoriozko polarizazioa lantzeko.

Ordutik, hausnartzen eta estrategiak pentsatzen aritu gara. Eta azken urteetako barne zein kanpo hausnarketetatik, hezkuntza formal zein ez-formalean parekidetasunaren gaia (baita bestelako gatazka soziopolitikoak ere) lantzeko estrategia aldaketaren aurrean gaudela ondorioztatu dugu. Esku hartze estrategia horien nolakotasun eta zehaztasunak ez dira iritzi-artikulu honetan sartzen. Baina utziguzue begirada aldaketa eta tresna batzuk zuekin partekatzen.

Lehenik eta behin, Talde Fazilitazioaren markoa zaigu zinez interesgarria eta erabilgarria. Izan ere, marko horrek ikastaldeetan gertatzen diren momentu gorenak (akusazioak, emozio indartsuak...) taldeko sistemaren parte

moduan ulertzera eramaten gaitu. Eta, ondorioz, aipatu gatazkan ageri diren rol erreakzionario horiek taldearen parte diren heinean, horiek sakonago ulertze-
ra (eta ez isilaraztera edo zentsuratzera) eramaten gaitu. Areago, Talde Fazilitazioak ikastaldeetan gertatzen diren zenbait dinamika (adib., botere harremanak) sakonago ulertzeko tresnak ere ematen dizkigu.

Bestetik, begirada errestauratiboa izango genuke; taldeetan gertatzen diren minen lehengoratzeko eta harremanen eraldaketarako bideak errazten dizkiguna. Egon daiteke begirada edo kultura hori epeltasunean (<3 Nakar) edo erlatibismoan kokatzen duenik, baina posizio "neutral" horretatik urrun dago begirada hori.

Izan ere, gatazka bateko minen sortzaile diren zapalkuntza dinamiken aurrean, posizionamendu argi bat dakar; mina artatuta eta mina eragin duenari ardura eskatuta. Horrela, ardura kolektiboari ere garrantzia ematen zaio eta, ezinbestean, min individual zein kolektiboa lehengoratzeko kolektiboki lan egiten da; komunitatean kultura eraldaketarako oinarriak ezartzen ditu.

Guk, hemendik aurrera, ikastetxeetan eta hezkuntza ez-formaleko espazioetan gertatzen diren gatazketan esku hartzeari ekingo diogu: taldearen zauri, indar, jakituria eta ardurei tokia emanez. ●

"Azpian lur hotza"

ITXARO BORDA
IDAZLEA

Azken asteko sapa lehergarri egunetan gure zereginen egitarauak aldatu beharrean aurkitu gara. Freskura erlatibo batek seietan atera gaitu ohetik, gosaldutik eta lan gehienak bederatzietarako plegatu ditugu eta hamarretan jalgi gara oinezko ibilaldia egitera. Eta ez ginen bakarrak karriketan eta ibai hegietan zanpa-zanpa joanki.

Aspaldian aipatu aldaketa klimatikoaren zantzuak materializatzen ari direlako sentsazioa daukagu, hor dago mamua, beldurtzen gintuen muga, nahiz eta ongi dakigun ez garela batere prest kanbiamendu horri buru egiteko.

Egia da, halaber, egitura mediatiko osoa sartua dela egoera klimatikoaren ukatzeko halako logika morbido batean, betiere, segur delako jende xeheak eta geriza gabeak dituela zakur-beroaren ondorioak pairatuko.

Termometroak berrogei gradu hurbil markatzen dituelarik, etsipen moduko zerbaitek hormatzen gaitu: ez dugu deus egiten ahal, asumitu behar dugu, egokitu ala hil. Europa mailan, jadanik, kasik berrehun mila jende hiltzen da beroagatik.

Egia da "lur hotzaren" azpian freskoago egiten duela... ●